

AZKEN OIHUA

Goiz eder honetan hil behar naute
txindor baten txintek gozotan naukatela;
hel nadin leihora begiok ihintz gabe!

Gorbea barren datorkit kainoi-hots itzela;
hor hegazkin-hegak hodei-lapur doaz.
Guda aingeru beltzak odoloz dakuskit
haien oin aurrean beredin gudari.
Gazte argi horiek, eutsi lur amari;
bera baizen onik ez dauka ludiak!

Eta begi hauen laino kristalduan
tinki igaro bitez gizonandi argiak;
esku zurbil hauk ahul luza bitez
euts zaitzaten ikurrin donea;
askatasun atsak betiko bil zaitzala!
Hantxe makur zaitte, oi buru nirea,
geure lur-amaren besarte gozoan!
Eta anai maiteok euts burrukari,
inoiz hilko ez den euskoen Amari.
Itxaropen hauxe sort bekik gogoan.

Jauna heriotza hau, arren, emaidazu:
Koldarrentzat utzi larrosen usaina,
askatasun donea bial egidazu,
ahaztu nahi dut, ba, arrotzen iraina.
Gorputz honek bakez atsedean dezan
herri askatuen Egun-Handira arte.
Gudan eror nadila zuzentasunaren alde,
ez ormari atzez, goiz eder argian.

Eta bake donea sortuko denean
nire hezur hutsak
besteenekin bil;
eresi gurenaz lagundu bidean
hobi bakarrera arte.
Baina, arren, buka
oroitzapenen maitasun itzela.
Kristoren gurutzeaz, beragan itxaroten dut,
Jesusen fedea besterik ez daukat.
Herri zintzo onenak zaindu dezala
hil ginenon hatsa, hil ginenon ahala.

MENDIGOIZALEARENA

Mendi heze, ikurrin eder,
aske nahi zaitut haizean.
Hamar gazteren liraina
makila luzez bidean!

Mendi-bideska berdeok,
arin hor doaz kantari:
«Dena eman behar zaio
maite den askatasunari».

Eta isil dago arratsa
Euskadiko lur-gainean.
Hamar gazteren liraina
makila luzez bidean.

Gaztedi horren deihadarra
bai dela deihadar zolia!
Aberrri baten saminez
urduri dabil herria.

Askatasun goizalderantz
sugarra dira basoak.
Sugarra dira basoak eta
zilar argia itsasoak.

Hor doan oste-araldea
aberrri-minez kantari!
«Dena eman behar zaio
maite den askatasunari».

Gazte horik gorantz doaz
abesti eta ikurrinez.
Lainoan baina tiro hotsak
belartza dager odolez.

Ikaraz doaz usoak,
mendia dago isilean.
Hamar gazteren liraina
bizirik gabe lurrean!

Eta iluntzeko bakean
norbait darraio kantari:
«Dena eman behar zaio
maite den askatasunari.»

GALDERA

Maitatzen bazaitut, galdetu diozu
leihoan klisk dagien ilargi-izpiari.
Arrosa zuriko txindor kantuari
hitza hartu ezinik gaua igaro duzu.

Haizeari galdetu diozu leunki:
hark baina jolas dagi zure ilean.
Ote dakite ezer izarren uean?
Musu degizute guztiek kutunki.

Galdetu diozu zeru garbiari,
itsasoko uhinei ta izadi orori.
Maitasun horrez baina, maite hori,
ez diozu galdetu zeure bihotzari!

HILERAZITAKO LANGILE BATI

Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarete mendi hezean!
Aurpegi beltzdun meatzarioi,
hator pikotxa lepo gainean.
Lepo gainean pikotx zorrotza,
eguzki diz-diz ta mendiz behera.
Hator bideskaz—goiza sorbaldan—,
kezko zerua daukan olara.
Opor-hotsa duk kale zabalean,
—ukabil sendo, soineko urdin—,
Jabeak, berriz, lasai etzanda,
laguntzat haukate, hi, urrutizkin.
Aurpegi beltzdun meatzarioi,
hari bitartez deiak zebiltzak.
Bideskan nola dirdir zegitek
txapel-okarren kapela beltzek!
Horiek daukaten gaizkin itxura
zizpa luzeak lepo gainean!
Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarete mendi hezean!

Mendiz behera lau txapel-okerre
aurpegi beltzdun meatzaria.
Begi beltz horiek sastakai d'ituk
baina zatitu ezin hesia.
Norantz haramate esku-lotuta
burdina margodun gorputz gogorroi?
Sendoa bahintz, etsai odolez
bustiko hukek pikotx zorrotzoi!
Nerbion-ertzok—tranbi dardara—,
askatu nahiz, zenbat ahalegin!
Baina olen zarata artean
haren aihotsik aditu ezin!
Zizpa luzeak sutan zeudek,

—opor-zaratak kale zabalean—,
Aurpegi beltzdun meatzarioi,
igeri hadi heure odolean...!
Txapel-okerre edango diate
ardo onena Gomez-etxean.
Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarete mendi hezean!

ZELAIAN

Lora billa neskatxa
larrerantza doa.
Bera loretan lore
lore gorenagoa.

Ene maitea
zelaiko galbidea!
Larretik itun dator
itun, bai, neskatxa.

Miñez duzu barrera
negarrez bihotza.
Bihotz barruan duzu
arantza zorrotza.

Ene gaxua
illun duzu gogua!
Zure matrail-lorea
zimelduz doa.

Lora billa neskatxa
larrerantza doa.
Lora billa joatean
Galdu du gogoa.

Ene maitea
zelaiko galbidea!
loretan lore zanak
galdu du berea.

AMAYUR GAZTELU BELTZA

Amayur gaztelu beltz hori
—berrehun gudari oso sumin—
zaintzen zaituzten zaldun onek
Nafarroa-alde egin dute zin.

Iskilo gorritz zenbat gazte
beldur gabeko menditar lerdin.
Eta horiek, Jatsu jaun horiek,
Jabierreko zaldun guren.

Ikurrin bat—kate ta lili—
dorre goitian zabal dago.
Hura salduko duen semerik
mendi honetan ez da jαιο.

Amayurko atezain horrek
zilar-turutaz oihu egik.
Baztan ibarrean zenbat etsai,
arrotz gabe ez dago mendirik!

Hesiturik Amayur dauka
Mirandako konde Espainiarrak.
Horiek bai brudinazko janzkiak,
ta urrezko ezpata-sagarrak!

Harekin dator, bai harekin,
Leringo etoi horren semea.
Txakur txarrek jango al haute
herri gabeko zaldun dongea.

Goiko aldetik hasten dira,
hasten dira suhaga-hotsez.
Orma kontretan zenbat zurgu,
eta gezi zorrotzak airez!

Baina dorrean zabal dabil
ikurrin bat—kate ta lili—.
Nork zapaldu ote ditzake
berrehun gudari orok zoli?

Amayurko gaztelu beltza
—erori zaizkizu dorre goitiak—.
Baina arrotza, ez hadi harritu,
nafar-seme dira guztiak.

Harrhesi gorri, zubi hautsi,
—zein guti diren zaldun horik—.
Herio, samurño hakie
aberrri-min baitabilta haik.

Mirandako konde gaizto horrek
jo itzazu zidar-turutak.
Ikurrin bat—kate ta lili—
ez du laztanduko haizeak.

Berrehun gudari oso sumin
gaztelu-pean daude hilik.
Ordutik hona—zenbat laino—,
Nafarroan ez da aberririk.

AGUR EUSKADI

Agur Euskadi, Jaunak narama
Aberrri eder argiak!
Neure negarrak jarin nituen
zure mendiei begira.

Seme bat zeukan baina etsaiek
kendu zioten bihotza,
soin ederrera isuri zitzaion
maiatz bateko goiz hotza.

Gurutze doneari musu eginaz
alde egin zizun mundutik;
Kristoren bakea aho gainean
loratu zitzaion gaztetatik.

Jaunaren maitez, Aberrri maitez
ez zuen eduki beldurrik;
eta zeuretzat zorian hutsa
opaldu zizun gogotik.

Euskadi ona, zaude betiko
Kristoren fede betean
hola zoriona aurkituko duzu
hemen ez bada zeruan.

Heriotza donea aurrean dut
sinets bada, euskaldun:
Euskadi aske izan dadin
zaindu Jesusen legea.

Eder zitzaizkidan euskal bazterrak,
eder itsaso zabala;
baina oraintxe ederrago zait
heriotza honen itzala!

Gaztea nauzu bizi honetan
ta ez zitzaidan falta gauzarik.
Jauna gogorra aldi honetan
ihes egitea lurretik!

Ez bedi egin nire oldea
Zure nahia bai osteria.
Gogoa bihoa zeru argira
gorputza lur ilunera.